

## **FUNTSEZKO JARDUERAK**

Gure funtsezko jarduera plataformako jarduerak izango dira, eskaintzen dugun zerbitzua gure plataformaren bitartez jendeari lana aurkitzea erraztea baita, baina arazoak konpontzea baita da funtsezko jarduera, gure bezeroen kokapena eta beren lanpostuen kokapenaren arazoa konpontzen baitugu, horrez gain, gure bezeroak gure aplikazioa erabiltzen edo guk esainitako lanpostuekin daukaten arazoak baita konpontzen saiatuko gara.

Halaber, gure aplikazioa manejatzea, mantentzea, eta hornitzea baita gure enpresaren zati oso garrantzitsuak dira.

Gure aplikazioa lanpostuekin hornituta izateko behar dugun funtsezko jarduera bat enpresa desberdinekin harremanetan egotea eta beren lanpostuak gure aplikazioan eskaintzeko akordio bat izatea da, baita esandako lanpostuei buruzko informazioa eskaintzeko.

Horrez gain, lan egiten dugun hiriaren mapa eta lanpostu guztien kokapena behar dugu, gure bezeroek kokapenak uler dezaten modu bisualean, lanpostuak beren hirietako mapetan kokatzeko gai izan daitezen, eta beraien lan-bilaketa errazteko.

Gure aplikazioa ondo funtziona dezan eta atzeratuta gera ez dezan bertan etengabe egindako berriketak eta aplikazioari buruzko bezeroen iritzien bilketa eta ikerketa egitea oso garrantzitsua da.